

**IKERTZAILE DOKTOREENTZAKO  
HOBEKUNTZARAKO DOKTOREGO ONDOKO  
PROGRAMEN DEIALDIA 2016-2017  
IKASTURTERAKO:  
Laguntza berriak ematea eta lehengo berritzeak**

***Deialdiaren xedea:***

Laguntza berriak emango dira Euskal Autonomia Erkidegoko ezarpen zentroetan izango diren ikertzaile doktoreen hobekuntzarako eta 2016-2017 ikasturtean aldi baterako atzerrira joango diren ikertzaile doktoreen desplazamendurako. Horretaz gainera, 2015-2016 ikasturterako emandako laguntzak ere berrituko dira.

***Laguntza berriak:***

**GARRANTZITSUA:**

**Konpromisoa lortzeko prozedura, lan kontratu bat prestatzeari begira, UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordearen aldetik (Deialdiko 25.5 artikulua):**

Eskatzaileek dokumentu hauek aurkeztu beharko dituzte posta elektronikoz ([pre-postdoc.dgi@ehu.eus](mailto:pre-postdoc.dgi@ehu.eus)), **2016ko ekainaren 13 arte, astelehena (egun hori ere barne)**. Mezuaren gaian hau jarri beharko da: **"POSDOC deialdia Eusko Jaurlaritza"**:

1. **NaNaren kopia**
2. **Doktore tituluaren kopia**
3. **Datu pertsonen fitxa. Eredua eskuragarri dago Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean.**
4. **UPV/EHUko ikertaldeko ikertzaile nagusiak sinatutako ziurtagiria (Deialdiko 25.13 artikulua). Eredua eskuragarri dago Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren webgunean.**

Aipatutako datatik aurrera ezin izango da bermatu konpromiso agiria behar den epean lortuko denik.

***Eskaerak aurkezteko epea eta era:***

**2016ko ekainaren 17 arte, ostirala (egun hori barne)**, izango du eskatzaileak eskaera bete eta erregistratzeko aukera, deialdiko 21. artikuluan jasotako bideetako bat erabilita.

## **Berritzeak:**

### **GARRANTZITSUA:**

**Konpromisoa lortzeko prozedura, lan kontratu bat prestatzeari begira, UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordearen aldetik (Deialdiko 33.3 artikulua):**

UPV/EHUn diharduten onuradunek agiria posta elektronikoz jasoko dute. Denboraz ez jasoz gero, [rrhh-inves.dgi@ehu.eus](mailto:rrhh-inves.dgi@ehu.eus) helbide elektronikoan eskatu ahalko dute.

### ***Eskaerak aurkezteko epea eta era:***

**2016ko uztailaren 15 arte, ostirala (egun hori barne)**, izango du eskatzaileak eskaera bete eta erregistratzeko aukera, deialdiko 21. artikuluan jasotako bideetako bat erabilita.

### ***Informazio gehiago:***

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-5552/eu/contenidos/informacion/dib4/eu\\_2035/bfi\\_e.html](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-5552/eu/contenidos/informacion/dib4/eu_2035/bfi_e.html)

### ***Eusko Jaurlaritzarekin harremanetan jartzeko:***

- Euskal Autonomia Erkidegotik: 012
- Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo: 945 018000
- Atzeritik: 00 34 945 018000